

# JESUS ETA AMA KALBARIOAN

1

Kalbarioan ikusten dogu  
egundoko pelikula,  
negargarri ta tristeagorik  
ez da ikusi sekula.  
Gaiztakerian lortu dogunok  
primerako matrikula,  
ontasunean zelan atera  
Mariak esan deiskula.

2

Jesusek dino: “Ama, egarri”  
ez al daukazu hor urik”?  
Amak ur-ordez, malko garratzak,  
han dana dago sikurik.  
Inoiz munduan izan ete dau  
amak holako traturik?  
Pixkatxo baten egon gaitezan  
berarekin alkarturik.

3

Ama bakarrik itzi beharra,  
hau Jesusen esturea!  
“Horra gaur arte nire Ama hau  
gaurtik aurrera zurea”.  
Horra Jesusek agertu deuskun  
neurribako ongurea:  
Ama-semeok izan daigula  
guk alkarren ardurea.

4

Amak alzoan dauka Semea,  
ia dirudi ametsa,  
gorputz osoa zauri gorritan  
txistu, izerdi, lupetza...  
On eginari esker gaiztoa,  
oi munduaren traketsa!  
Baina Amari ez jako damu  
lehen emondako baietza.

5

Semea hilda beso-artearen  
eta Zu, Ama, negarrez,  
seme-alabok bizi barria  
Aitari sortu beharrez.  
Bizi barririk ezin da sortu  
gorrotoz eta indarrez;  
zaharraren ordez, bizi barria  
dator maitasun sugarrez.

6

Kalbarioan zer gertatu zan  
ama-semeok dakigu,  
behin ta betiko bihotz-mamian  
josita geldi bekigu.  
Gure okerrak bere gain hartu  
eta jaso dau kastigu,  
danoi parkatuz, salbatu gaitu,  
geu gara horren testigu.